


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maiana Ager

*Mitikile-
Larriori-
Mendibile,
Zuberoa*

Aurkibidea

Biografia



Mitikilen jaioa. Òndurüeinen
bizi zen elkarrikketa egin
aurreko hogeita bi urtean.

Zintak

MIT-001

- **Proiektua:** Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Data:** 2011-09-09
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Alabak euskaraz, semeak ez

- **Erref:** MIT-001/001
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Mitikilen jaio eta Ündüruinen bizi azken 22 urtean. Senarrak, Sarrikotapeakoa, ulertzen du euskara baina gutxi mintzatzen da. Alabak egiten du baina semeak ez. Etxean ikasi behar omen da lehendabizi euskara, etxeko euskara, zuberotarra.

Transkripzioa

- Eta zuk, zer izen duzu? Zer izen?
- Maiana.
- Maiana?
- Bai.
- Eta beste izena?
- Ager.
- Ager?
- Bai, üskaaz.
- Euskaraz?
- Bai.
- Beti euskaraz?
- Bethi üskaaz.
- Eta non sortua?
- Mithikilen.
- A Mithikilen?
- Bai, heben kantin.
- Bai, ezagutzen dut, bai.
- Bai.
- Eta gero, noiz etorri zinen hona bizitzera?
- E... hunat... hunat, badizü oai hogeita bi urte heben giala. Bestela, Sarrikotapin...
- A, Sarrikotapean?
- Hor kantin.
- A bai, ezagutzen dut.
- Bai. Ene senharra han sorthüik düzü.
- A bai? Eta euskalduna da ere bai edo...?

- Bai bena ez dizü /eztizü/ paketik elhestatü.
- Ez?
- Ez. Ordin oro entelegatzen dizü bena ez hanitx elhestatzen.
- Hori da. Eta zure alaba guziek badakite?
- Alhabak badakizü bai, heinbat untsa, eta semik khasik batee.
- Kasik batere?
- Oro entelegatzen dizü bena ez elhestatzen paketik. Aita bezala.
- Baina zuk erakutsi diezu biei.
- Bai!
- Bai.
- Bai, etxen.
- Etxean?
- Etxen, bethi hoi erraiten dit, etxen.
- Zure iduriz hala behar da, bestela...
- Bai, ene... ene üdüiz bai, etxen behar dizü ikhasi. Beste gaizak oro bezala, etxen ikhasi üskaa.
- Bestela, ez da...ez da gauza bera...?
- Ez düzü /eztüzü/ batee bera, ez.
- Ez da gauza bera?
- Ez, zeen... heben ez dizie /eztizie/ oroek ikhasten xibeotarra...
- Ez?
- Edo batua, edo... besteik düzü.
- Eta zure iduriz, xiberotarra ikasi behar da?
- A gutako bai. Gutako bai. Eni ejerrena zitazüt hua. Hua beitüt ikhasi!

2. Euskaldunekin beti euskaraz

- **Erref:** MIT-001/002
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:02:08. **Bukatu:** 00:03:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Familian oro egiten dute euskaraz. Etxetik kanpo ere bai euskaldunekin. Inguruko herri guztietan egiten da euskaraz.

Transkripzioa

- Eta orain, hemen, euskaraz elekatzen da edo...?
- Zumbait.
- Bai?
- Ez oro, ez.
- Oro ez baina zenbait bai?
- Bai, zumbait bai.
- Eta zuen artean eta... ibilitzen... elekatzen zarete?
- A gü familian, oro üskaaz.
- Bai?
- Oro!
- Oro-oro?
- Bethi üskaaz.
- A ongi.
- Bai.
- Eta etxetik landa?
- Etxeti landa?

- Etxetik kanpo?
- Etxeti khampo? E be... üskaa badakienekin üskaaz.
- Bai?
- Gio badenin norbait entelegatzen ez diena /eztiena/... bon be frantsesez.
- Eta anitz zarete euskaraz elekatzen zaretenak?
- Bai, bai, bai, bai! Gü bai... gü bai.
- Zure alabak erran du dela euskaldunagoa zera... Ezpeize, Ündüreine baino. Ez edo gisa bera?
- Enetako gisa bera. Ber gaiza, alde bat ala bestia.
- Eta zure sorlekua, Mithikile?
- Bai.
- Ere bai, euskalduna?
- Bai. Gio han 'e badüzü e' familia hanitx jin beitia khampoti. Eta ordin, bon, ez dakizie /eztakizie/ bethi...

3. "Arrailobak"

- **Erref:** MIT-001/006
- **Iraupena:** 0:00:21. **Hasi:** 00:05:20. **Bukatu:** 00:05:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Mitikileko jaiotetxera usu joan ohi da. Han bizi dira, besteak beste, bere "arrailobak", (ilobak), bere alabaren semeak.

4. Apez bakarra herri anitzendako

- **Erref:** MIT-001/008
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:07:10. **Bukatu:** 00:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Eliza goian dago Ündürein. Ezpeizen ere bada eliza. Apez bakarra eliza anitzendako. Bi hilabetetik behin dute meza herrian.

5. Mezak euskaraz

- **Erref:** MIT-001/010
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:09:03. **Bukatu:** 00:10:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Meza ederrak izaten dira, euskarazko kantuekin eta. Frantsesez ere izaten dira zati batzuk, euskaraz entelegatzen ez duen jendea ere izaten delako. Hiru

kanpandorreko elizak Zuberoan bakarrik daude. Baina Zuberoan ere asko dira bakarrekoak.

6. Ahüski aldera abereekin udan

- **Erref:** MIT-001/012
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:12:04. **Bukatu:** 00:15:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Abere asko zuten lehen, denetarik gainera. Udan Ahüskira ("bortüalat") eramaten zituzten ardiak eta zenbait behi. "Debeatu" (aspertu) hitzaz. Larre ona mendi omen horretakoa. Ardiak Larraine aldera eramaten zituzten. Orain koinatuak, Matalazen etxean bizi denak, 400 ardi ditu.

7. Artzain bakarrak lau edo bost artalderen ardura

- **Erref:** MIT-001/015
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Artzain batek begiratzeko zituen lau edo bost etxetako artaldeak, bortuan zirelarik. Apanizen urarekin arazoak izaten omen ziren.

8. Sukaldari Mauleko eskola batean

- **Erref:** MIT-001/017
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:19:52. **Bukatu:** 00:21:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Mauleko eskola batean egiten zuen sukaldari lana. Lan "paketa" (handia) zen, baina asko gustatzen zitzaion. Hogeitaz ibili zen. Oso pozik jartzen da orduko haurrak handi eginda kalean aurkitzen dituenean.

9. Senideak Parisen eta Oloroen

- **Erref:** MIT-001/020
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:26:20. **Bukatu:** 00:28:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskara diasporan
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

Laburpena:

<p>Parisera jende asko joaten zen lehen bizitzera. Ahizpa eta beste hainbat senide ditu Parisen. Oluen (Oloron) ere badu familia. Familia horrek beti euskaraz egiten du, baita han jaioetako ilobak ere.</p>

10. Montori eta Eskiula

- **Erref:** MIT-001/022
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:29:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Roger Idiart apezak kantoria egin zuen: "Euskal Herria Montori" izenekoa. Montorin, Zuberoa izan arren, bearnesez mintzo dira, Eskiulan alderantziz gertatzen da. Mauleko apezak meza ematen du Eskiulan.

11. "Zola", lurra, "le fond"

- **Erref:** MIT-001/023
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:29:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

"Zola" hitzak zuberotarrez zer esan nahi duen galdetuta, "le fond"," lurra", "sukalde zola" erantzun du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-25

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com